



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ESP.KODEA	2022OFIT0007
COD.EXP.	
ESPEDIENTEA EXPEDIENTE	BULEGO TEKNIKOKO OROKORRA
TITULARRA TITULAR	AZKOITIKO UDALA
TOKIA LUGAR	AZKOITIA

UNAI URKIJO RODRIGUEZ, AZKOITIKO UDALEKO IDAZKARIA,

NEUK ZIURTATUA

Nire ardurapeko Idazkaritzan dagoen dokumentazioa aztertu ondoren, eta Toki-Entitateen Antolakuntza, Funtzionamendua eta Jardunbidea arautzen dituen azaroaren 28ko 2568/86 Errege-Dekretuko 206. artikulua xedaturiko ohararazpena eginez, bilkurako Akta ez baitago onarturik, Azkoitiko Udalbatza Plenoak 2022ko irailaren 28an egindako bilkuran, beste batzuen artean, honako akordio hau hartu zuen gehiengoz:

“LURRALDE ANTOLAKUNTZA, INGURUMENA, LANDA GARAPENA, OBRAK ETA ZERBITZUETAKO BATZORDE INFORMATIBOAREN IRIZPENA

GAIA: AZKOITIKO IRISGARRITASUN PLANAREN ONARPENA

Udal Arkitektoak idatziriko txostenaren arabera:

I. AURREKARIAK

Azkoitiko Udal honek 2002. urtetik hiriguneko kaleen, eta eraikinen irisgarritasun baldintzak aztertzen dihardu.

Hasierako lan horren emaitza nabarmenena, 2003. urteko apirilean Via Libre enpresak idatziriko Irisgarritasun Plana deituriko dokumentuaren onespena izan zen. 2003ko abenduaren 18ko Udalbatzak onartu zuen.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Bertan, garai hartako irisgarritasunaren egoera ikusita, hainbat hobekuntza proposatu ziren, dokumentuan jasotako fitxak bitarteko.

Fitxa horietan hiriguneko kaleetan eta eraikuntzetan irisgarritasuna hobetzeko egin beharreko jarduketak jasotzen ziren.

Udal honek dokumentua eguneratua egoteko hainbat aldaketa egin ditu. Aldaketa horien helburua Azkoitia Irisgarritasun Plana ahalik eta eguneratuen mantentzea izan zen, irisgarritasun plana dokumentu bizia delako

Udal artxiboan jasota dauden espedienteak egiaztatu ondoren, halaxe proposatu, eta onartu zuen Udal honek 2008. urtean, Aizpurutxo auzoko pasealekurako, Urrategiko plazarako, eta Xabier de Munibeko jangelarako. Era berean, 2009. urtean, Elkarguneko eraikineko obrak bitarteko, Aita Madinabeitia plazako fitxa berria sortu zen, bertako igogailua bitarteko zela.

2019-an dokumentu honek fitxen aldaketak onartu zituen:

- Floreaga auzoan
- Elkargunea eraikinekoa
- Gaztan enea jauregian

2003-tik denbora pasa da eta Plana zaharkitua geratu da. Herria eremu berriak sortu dira herrian, eta beste batzuk eraldatu. Ondorioz, 2020an Irisgarritasun Plan berria idazteko kontratazioa hasi zen.

Azkoitiko Udalak. plan berria idazteko lanak, Ingartek enpresari esleitu zizkion

II. ARAUDIA

Jarraian indarrean dagoen legediaren aipamena egiten da:

- Euskadi mailakoa:

- *Ley 20/1997, de 4 de diciembre, para la Promoción de la Accesibilidad*
- *Decreto 68/2000, de 11 de abril, por lo que se aprueban las normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación*
- *Decreto 42/2005, de 1 de marzo, de modificación del Decreto por el que se aprueban las normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación.*



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- *-Guía de aplicación de la normativa técnica vigente en materia de accesibilidad en la Comunidad Autónoma del País Vasco, julio 2012*

- Estatu mailakoa:

- *Real Decreto 173/2010, de 19 de febrero, por el que se modifica el Código Técnico de la Edificación, aprobado por el Real Decreto 314/2006, de 17 de marzo, en materia de accesibilidad y no discriminación de las personas con discapacidad.*
- *Orden TMA/851/2021, de 23 de julio, por la que se desarrolla el documentotécnico de condiciones básicas de accesibilidad y no discriminación para el acceso y la utilización de los espacios públicos urbanizados.*
- *CORRECCIÓN DE ERRATAS del Real Decreto 1544/2007, de 23 de noviembre, por el que se regulan las condiciones básicas de accesibilidad y no discriminación para el acceso y utilización de los modos de transporte para personas con discapacidad.*
- *REAL DECRETO 1544/2007, de 23 de noviembre, por el que se regulan las condiciones básicas de accesibilidad y no discriminación para el acceso y utilización de los modos de transporte para personas con discapacidad.*
- *REAL DECRETO 505/2007, de 20 de abril, por el que se aprueban las condiciones básicas de accesibilidad y no discriminación de las personas con discapacidad para el acceso y utilización de los espacios públicos urbanizados y edificaciones*
- *REAL DECRETO 366/2007, de 16 de marzo, por el que se establecen las condiciones de accesibilidad y no discriminación de las personas con discapacidad en sus relaciones con la Administración General del Estado.*
- *REAL DECRETO 1414/2006, de 1 de diciembre, por el que se determina la consideración de persona con discapacidad a los efectos de la Ley 51/2003, de 2 de diciembre, de Igualdad de oportunidades, no discriminación y accesibilidad universal de las personas con discapacidad.*
-

III. TXOSTENAREN XEDEA

Txosten honen xedea da Azkoitiko Udalak idazteko kontratatu zuen 2021eko Irisgarritasun Plan berria onartzea.

Irisgarritasun unibertsalarekin lotutako arazoak konpontzeko, eta irisgarritasuna berez dituen angelu guztien azterlana eta jorratzea egiten da:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- Garraioa, bai garraio publikoaren geltokien irisgarritasunarekin lotutako alderdiak, bai mugikortasun urriko pertsonentzako aparkalekuen erabilera egokia kontuan hartuta.
- Bide eta eremu publikoak, hala arkitekturako ikuspuntutik nola ibilbide irisgarrien eta unibertsalen ikuspuntutik, mugikortasuna laguntzeko elementu mekanikoak (igogailuak, arrapalak) ezartzeko esku hartzea kontuan izanik.
- Eraikin publikoak eta pribatuak.
- Informazioa, bide eta eremu publikoetan eta garraibideetan.

Dokumentu hauek jaso dira udalerraren Irisgarritasun Planean:

- Alderdi orokorrak: aurkezpena egiteko dokumentu bat da, eta bertan azaltzen da zer helburu lortu nahi diren, zer metodologia eta tresna erabiliko diren, zer prozedurari jarraituko zaion eta zer taldek idatzi duen dokumentua. Era berean, Irisgarritasun Planaren eta udalerraren egungo egoeraren aurretiko diagnostiko bat ere biltzen du.
- Araudia: egoera ebaluatzeko eta jarduketak proposatzeko erreferentzia gisa zer lege-elementu erabili den azaltzen du.
- Bide publikoa: bide publikoari dagokionez, horrek berez dituen elementu guztien analisia jaso, bideen hierarkizazioa egin, eta, horretan oinarrituta, jarduketak lehenetsi dira.
- Eraikin publikoak: eraikin publikoen inbentarioa egin, haietako bakoitza aztertu, eta haien irisgarritasun unibertsala bermatzeko egin beharreko jarduketak proposatu dira.
- Garraioa: udalerriko garraio publikoaren geltokien azterketa sartu da, baita erreserbatutako aparkalekuena ere, eta non esku hartu behar den zehaztu da.
- Komunikazioa: udalerriko komunikazioan dauden oztopoak kentzeko zer jarduketa egin behar diren zehaztu da. Dokumentu honetan finkatu dira ildo horretan jarduteko irizpideak, eta bide publikoan, eremu libreetan, eraikinetan eta garraioan aplikatu dira.
- Laburpena: arestian azaldu diren jarduketan laburpen bat biltzen du, baita irisgarritasuna hobetzeko inbertsioen lau urteko plan bat ere.
- Eranskinak: jarduketak zehazteko planoak, ibilbideen eta eremu mekaniko bertikaletarako proposamenen arabera sailkatuta.

Planaren bitartez lortu nahi diren helburu espezifiko batzuk hauek dira:

- Udalerriko auzo guztien irisgarritasuna bermatzea eta, horren barruan, baita horiek osatzen dituzten plataforma guztiena ere.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- Udalerrian funtzionatzen duen garraio publikoaren irisgarritasuna bermatzea.
- Horrez gain, titularra udala den eraikin guztietan ere ahalbidetzea irisgarritasuna.
- Hiriko aisialdirako eremuak (plazak, parkeak...) pertsona guztiek erabil ditzatela sustatzea, eta irisgarri bihurtzeko zer jarduketa egin behar diren azaltzea.
- Egin beharreko jarduketa multzoa hierarkizatzea, lehen mailako eta bigarren mailako jarduketak bereizi ahal izateko moduan, eta jarduteko ordena kronologiko bat ezartzea.
- Aurrekontu-esparrua mugatzea: hala jarduketa bakoitzerako nola jarduketa multzo osorako.

IV. PROPOSAMENA

LEHENA.-Onartzea “AZKOITIKO IRISGARRITASUN-PLANA”, INGARTEK enpresak idatzi duena.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea udalaren Web orrian.

Hirigintza Batzordeak, 2022ko irailaren 22an egindako bileran, gaia aztertu eta irizpena eman zuen, eta hau izan zen emaitza: **GEHIENGOZ ONARTUTA.**

ALDEKO BOTOAK: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

ABSTENTZIOAK: Angel Etxeberria Iburguren eta Itziar Joaristi Olariaga.”

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Abstentzioak: Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Iraitz Otaño Mujika, Laida Beristain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga eta Angel M^a Etxeberria Iburguren.

Beraz, Udalbatza Osoak, Azkoitiko Irisgarritasun Plana onartzea gehiengoz erabaki du.

Honela jasota gera dadin, eta behar den lekuan ondorio egokiak sor ditzan, ziurtagiri hau luzatu eta izenpetzen dut, Alkateak Ontzat Emanik, Azkoitian,

ALKATEAK

IDAZKARIAK

O.E.

IDAZKARITZA – Tel . 943 857175 / Fax. 943 852140 – idezkaritza@azkoitia.eus
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO ENPARANTZA Z/G – 20720 AZKOITIA



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU3f957f47-73dc-441e-b976-eeeb1a213102**

Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>**

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2022OFIT0007-Akordia/Acuerdo (AZKOITIKO UDALA)